# ATAUNGO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 1GO PLANA

**2017ko ABENDUA**



ATAUNGO UDALA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# AURKIBIDEA

BERDINTASUN DIAGNOSTIKOTIK- BERDINTASUN PLANERA ........ 7

Oinarrizko ideia batzuk ........ 7

LEGE ESPARRUA ........ 8

Berdintasun Legea, Otsailaren 18ko 4/2005ekoa. ........ 8

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana: ........ 9

GOBERNANTZA HOBETZEKO NEURRIAK. ........ 9

Eskuhartze ardatzak ........ 10

LAN PROZESUA ETA METODOLOGIA ........ 12

0 Fasea: Prestaketa lanak ........ 12

1 Fasea: Diagnostikoa eguneratu eta “Laiatuz” saioak. ........ 12

2 Fasea: Jasotakoaren lanketa eta Berdintasun Planaren Zirriborroa ........ 14

3 Fasea: Kontraste eta konpromezu bilera ........ 14

4 Fasea: Aurkezpen publikoa eta onarpena ........ 14

1. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA HOBETZEKO BIDEAK ........ 16

G1. Berdintasunerako Plangintza Areagotzea eta Hobetzea ........ 17

G2. Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea ........ 18

G3. Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea ........ 19

G4. Estatistika eta azterlanetan genero ikuspegia txertatzea ........ 20

G5. Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia txertatzea ........ 22

G6. Enplegu publikora sartzeko eta bertan sustatzeko hautaketa prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea ........ 23

G7. Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea ........ 24

G8. Araudian berdintasunaren printzipio txertatzea ........ 25

G9. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea ........ 25

G10. Sektorekako eta zeharkako planetan genero ikuspegia sartzea ........ 25

G11. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea ........ 26

G12. Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatu sustatzea .................... 28

G13. Kontsultarako eta parte-hartzeko organoetan genero-ikuspegia sartzea .................... 29

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEREN ARDATZA .............................. 30

1.go programa: Balioak aldatzea ........................................................................................ 31

1.1. Balioak aldatzea sustatzea, pertsonei sexuaren arabera emandako genero estereotipoak eta rolak ezabatuz azpigrograma ............................................................ 31

2. Programa: Ahalduntze pertsonala laguntzea ................................................................ 34

2.1 Emakumeen autoestimua konpontzen eta garatzen laguntzea azpiprograma ........... 34

2.2.Genero kontzientzia bultzatzea eta emakumeen autonomiaren garapena sustatzea azpiprograma ............................................................................................................. 35

3. Programa: Ahalduntze kolektiboa laguntzea .................................................................. 37

3.1. Emakumeen laneratzea eta lan baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea, taldeen eta egoera aniztasuna kontuan hartuta azpiprograma ....................................... 37

3.2. Pobrezia edo/eta bazterkeria egoeran dauden emakumeen kopurua murriztea azpiprograma ............................................................................................................. 38

3.3. Emakumeek gizarte baliabideak eskuratzeko aukera hobetzea, batez ere erabilera desberdintasun handia duten horietan, eta askotariko diskriminazio egoerei arreta handia jarriz azpiprograma ................................................................................................... 38

4. Programa: Ahalduntze sozial eta politiko laguntzea ........................................................ 39

4.1. Emakumeek elkarteen mugimendua sustatzea eta emakumeak horietan parte hartzera bultzatzea azpiprograma .................................................................................. 39

4.2. Erabaki eta eragin guneetan emakumeen presentzia eta partaidetza handitzea azpiprograma ............................................................................................................. 40

3. GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA ARDATZA ...................................................... 42

5. Programa: Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera berriak ..................................... 43

5.1. Erantzukidetasuna eta zainketaren etika sustatzea azpiprograma ............................ 43

5.2. Emakumeek aisialdiaz gozatzera eta autonomia/independentzia ekonomikoa lortzera bideratutako denbora handitzea azpiprograma ............................................................... 44

6. Programa: Kontziliazio Erakuntzukidea ............................................................................ 45

6.1. Enpresen kultura kontziliazio erantzunkidrantz aldatzea azpiprograma .................... 45

6.2. Zerbitzuen ordutegien estaldura eta malgutasuna areagotzea azpiprograma............ 46

6.3. Hirigintzako plangintza eta herritarrei zuzendutako zerbitzuak aldatze kontziliazio erantzukidea errazteko azpiprograma ................................................................. 46

4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA ........ 48

7. Programa: Sensibilizazioa eta prebentzioa ........ 49

7.1. Indarkeriarik gabeko portaera ereduak bultzatzea azpiprograma ........ 49

7.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa eta ikerketa hobetzea ........ 51

8. Programa: Detekzioa eta Arreta ........ 51

8.1. Portaera bortitzak garaiz hautematea eta horiei buruzko informazioa areagotzea azpiprograma ........ 51

8.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen babesa eta arreta osoa bermatzea azpiprograma ........ 52

5. KUDEAKETA ETA JARRAIPEN SISTEMA ........ 53

6. EBALUAKETA ........ 53

# HITZAURREA

Ataungo Emakume eta Gizonen arteko Berdintasuna bultzatzea lehentasuna da Ataungo Udalarentzat. Ulertzen dugu, gure ardura dela herritar guztiak, herritar oso izatea, beren betebehar eta eskubideekin. Hau honela izanik, emakumeek historikoki jasan duten zapalkuntza egoera iraultzeko lanarekin jarraitu nahi dugu, seriotasunez eta konpromisoz.

Ataunen Emakume eta Gizonen Berdintasuna bultzatzeko ezinbestekoa da Udalak datorren urteetan garatuko ditugun Berdintasun Politikak definitzea, helburu horrekin osatu dugu "ATAUNGO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 1go PLANA". Herri eragileekin eta herritarrekin elkarlanean definitu dugu Plana, bakoitzak bere esparrutik eta dagozkion ardurak bere eginez, Ataunen Emakume eta Gizonen arteko Berdintasuna errealitate bilakatzeko asmoarekin.

Ataungo Udala eta herritarrak

# BERDINTASUN DIAGNOSTIKOTIK- BERDINTASUN PLANERA

2012an egin zuen Ataungo Udalak herriko emakume eta gizonen egoeraren lehendabiziko Berdintasun Diagnostikoa. 2017an zehar, diagnostiko hori eguneratu da eta diagnostikoaren emaitzak kontutan izanik, Ataunen berdintasun politikak bultzatzeko plangintza bat osatu da. Lanketa horren emaitza da esku artean duzun dokumentua. Berdintasun plan honek lau urteko iraupena izango du, 2018etik 2021era arte (biak barne). Dokumentu honek urte hauetan udaletik (eta herriko beste hainbat eragiletatik) berdintasuna bultzatzeko hartuko diren neurri, programa eta ekintzak zeintzuk izango diren ezagutzeko aukera ematen dizu.

**Ataungo Emakume eta Gizonen Berdintasunareko 1go Plana**, herrian berdintasuna bultzatzeko tresna bat da. Tresna honen erabilgarritasuna bermatzeko, herriaren eta Udalaren ezaugarriak izan dira kontuan, testuingurura moldatutako helburu errealak finkatuz.

## Oinarrizko ideia batzuk

**Zer da berdintasunerako plan bat?**

Berdintasunerako plana ekintza batzuen bitartez gizartean eragina izateko **tresna bat** da. Gizarte horretan emakume eta gizonen artean berdintasun gehiago lortzeko tresna bat. Ez da asmo adierazpen bat, ez eta berdintasuna lortzeko konpondu beharreko arazo zerrenda bat, epe jakin batean (4 urte) eta toki jakin batean (Ataunen) gauzatu beharreko lan egitarau bat da.

**Zertarako balio du berdintasunerako plan batek?**

Lana sistematizatu eta emaitzak optimizatzeko. Ez dauka eragin berdina lokarri gabeko ekintza sorta batek eta estrategia baten barruan burutzen denak. Orobat balio behar luke prozesuan ahalik eta eragile gehien konprometitzeko.

**Nori zuzenduta dago?**

Herritar guztiei, gizon nahiz emakumeei, Udaleko arlo guztiei eta gizarte eragile guztiei. Esparru guztietatik egin daiteke lan berdintasunaren alde.

**Zertan oinarritu gara plana prestatzeko?**

Herriko gizarte eragileek (elkarteek, udal langileek eta politikoek) egindako ekarpenak hartu ditugu oinarritzat. Euren bidez identifikatu ditugu planean sartu beharreko ekintza esparruak eta eurek gauzatzeko izango ditugun baliabideak

# LEGE ESPARRUA

Ataungo I.go Berdintasun Plana egiteko sahieztezinak diren bi marko erabili dira:

## Berdintasun Legea, Otsailaren 18ko 4/2005ekoa.

> **Lege honen helburua gizon-emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea da *"eskubideak, boterea eta baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak lortzeko orduan, baita horiek guztiak gauzatu eta kontrolatzeko orduan"*.**

Berdintasun planak, Legeak finkatutako betebehar bati erantzuten dio. Emakume-Gizon Berdintasunaren aldeko 4/2005 Legeak oso garbi definitzen ditu emakume-gizonen berdintasunaren alorrean administrazio-maila bakoitzari dagozkion zereginak eta herri botere guztiak behartzen ditu emakume-gizonen benetako berdintasuna lortzeko baldintzak ezarri eta oztopoak kentzera, horretarako beharrezkoak diren politika eta ekintzak sustatzera.

4/2005 Legeak honako zereginak esleitzen dizkio **Toki Administrazioari**:

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
- Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta Foru Aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasuna egoerak ezagutu ahal izateko.
- Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bat eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea,

zerbitzuon izaera dela eta udal mailan eman beharrekoak direnean.

- Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu sozio komunitarioak ezartzea, beren izaera dela eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundean xedeek edo eginkizunek toki eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Toki eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.

Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokeen beste edozein eginkizun betetzea.

## EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana[1]:

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren aldeko VI. Planak bi atal nagusi ditu: gobernantza hobetzeko neurriak eta esku-hartze ardatzak (hiru orotara).

**GOBERNANTZA HOBETZEKO NEURRIAK.** Hamahiru neurri mota definitzen dira Euskal Herri Administrazioan berdintasunaren aldeko oinarrien integrazioa bultzatzeko:

G1: Berdintasunerako plangintza areagotzea eta hobetzea

G2: Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea

G3: Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea

G4: Estatistika eta azterlanetan genero ikuspegia txertatzea

G5: Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia txertatzea

G6: Enplegu publikora sartzeko eta bertan sustatzeko hautaketa prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.

G7: Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea

G8: Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea

1 Aipatzen den VI. plan hau Emakundek burutzen du, eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztu behar dio, onartzeko. Horretaz gain, 4/2005 Legeak adierazten duenez, plangintza horren esparruan, Eusko Jaurlaritzako sailek (15.2 artikulua), Foru Aldundiek eta udalek (15.3 artikulua) berdintasunaerako planak egin behar dituzte, eta horiek bat etorri behar dute plangintzan adierazitako jarraibide eta gidalerroekin.

G9: Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea

G10: Sektorekako eta zeharkako planetan genero ikuspegia sartzea

G11: Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea

G12: Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea

G13: kontsultarako eta parte-hartzeko organoetan genero ikuspegia sartzea

## Eskuhartze ardatzak

Berdintasuna sustatzean lehentasunez jorratu beharreko gaiak dira ardatzak. Ondorengo taulan ikus ditzakezue VI. Berdintasun Planak proposatzen dituen ardatzak eta ardatz bakoitzari dagozkion programak.

| ARDATZAK | BALIOEN ALDAKETA ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | | | | GIZARTE ANTOLAMENDU ERANTZUKIDEA | | EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN DESAGERRARAZTEA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PROGRAMAK | Balioen aldaket a | Ahaldunt ze pertsona laren aldeko laguntza | Ahalduntze kolektiboare n aldeko laguntza | Ahalduntze sozial eta politikoaren aldeko laguntza | Erantzukideta suna eta denboraren erabilera berriak | Uztartze erantzunkidea | Sentsibilizazi oa eta prebentzioa | Atzematea eta arreta |

Emakume eta Gizonen Berdintasuserako VI. Plana eta 4/2005 Legea, emakume eta Gizonen berdintasunekoaz gain, gogoan izan behar dugu, Ataungo Berdintasun Plan honek arau testuinguru zabalagoa daukala, hurrengo orrian ikus litekeen bezala tokian-tokitik globalera doana:

**ESTATU ESPARRUA:**

1/2004 Legea, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurrie buruzkoa

3/2007 Legea, Emakume eta Gizonen Berdintasun eraginkorrerakoa

39/2006 Legea, norberaren autonnomia sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzekoa

**EUROPA:**

Erromako (1957) Maastrichteko (1992) eta Amsterdameko (1997) Tratatuak.

Europako Konstituzioa, Europako Kontseilua 2004.

Europako Batzordearen Batasunaren Berdintasunerako Estragia Progamak (2010-2015)

**EAE:**

**Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana**

**4/2005 Legea, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako**

**Ataungo Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 1go plana**

**NAZIO BATUAK:**

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948. Emakumeen Eskubideei buruzko konbentzioa, 1952.

CEDAW Konbentzioa, 1979.

RES AG 48/104 Adierazpena, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzkoa, Viena, 1993

Emakumeei buruzko munduko Konferentziak (1975, 1985, 1995)

**GIPUZKOA:**

II. Foru Plana Emakumen eta gizonen Berdintasunerako (2012-2020)

# LAN PROZESUA ETA METODOLOGIA

Aurrera eraman den lan prozesuak hainbat fase izan ditu:

## 0 Fasea: Prestaketa lanak

Gizarte Ongizatea, Herritarren Parte hartzea eta Berdintasuneko zinegotziarekin lan prozesu guztia prestatu da, Emakundera aurkeztutako lan-proposamenetik abiatuz, herriko errealitatera egokitu da prozesua. Prozesuan parte-hartzeko kontaktazioa eta deialdiak nola egin adostu dira esaterako.

## 1 Fasea: Diagnostikoa eguneratu eta "Laiatuz" saioak.

2012an egin zen Berdintasun Diagnostikoa eguneratzeko lana eta planaren diseinu lana ("laiatuz" saioen bitartekoa) paraleloan egin dira. Hau da lan-saio trinkoak egin dira (3 ordukoak) bi esparruak lantzeko.

Saioek ondorengo helburuak bete dituzte:

- Diagnostikoa aurkeztea eta ondorioak eguneratzea.
- Berdintasunaren inguruko herritarren, politikarien eta udal teknikarien lehentasun, kezka eta proposamenak jasotzea.
- Lan-saioak baliatzea arduradun politiko eta teknikoak trebatzeko planaren diseinuan eta ondorengo jarraipenean oinarrizkoak izango diren kontzeptu eta tresnetan.

Proposamenean hiru "laiatuz" saio aurrikusten ziren: Udal ordezkaritza politikoarekin, udal teknikariekin eta herri eragileekin. Egoerak horrela behartuta (ordutegiak, bajak, etab.), teknikarien kasuan lan-saio baten ordez hainbat elkarrizketa egin dira.

**Laiatuz: Udal Gobernua**
**Eguna: 2017-10-23**

| Parte-hartzaileak | Ardura: |
|---|---|
| Asier Rodriguez | Alkatea (EHBildu) |
| Aitor Arruabarrena | Hirigintza eta Turismoa (EHBildu) |
| Karmele Aierbe | Kultura, Euskara eta Kirola (EHBildu) |
| Mielmari Jauregi | Mendia(EHBildu) |
| Iraitz Goikoetxea | Gizarte Ongizatea, Herritarren Parte hartzea eta Berdintasuna (EHBildu) |
| Amaia Auzmendi | (Herrigintza) |
| Juanjo Maiza | Mendia, Kultura eta Hirigintza Batzordeetan parte-hartzen du. (Herrigintza) |

**Laiatuz: Herri-eragileak**
**Eguna: 2017-11-16**

| Parte-hartzaileak | Taldea |
|---|---|
| Eneko Amundarain | Jentilbartza K.E |
| Marijo Galparsoro | Biboletak<br>Murkondo |
| Garazi Etxeberria | Biboletak<br>Liburu eta Disko Azoka<br>Argazkilaritza rallya |
| Kristina Arratibel | Joxemiel Barandiaran Eskolako Guraso Elkartea |
| Pili Eskisabel | Herritarra |
| Ainara Lasa | Hirutxilipurditan<br>Hezkidetza behatokia |

*Aizkoate Elkartetik ezin-etorria adierazi zuten baina prozesuaren berri izan nahi zutela jakinarazi zuten.

Laiatuz saioez gain, planaren egitura osatze aldera, hainbat elkarrizketata egin dira:

- Garazi Etxeberria: Kultur dinamizatzailea
- Miren Martinez : Gizarte Langilea
- Agurtzane Etxeberria eta Ibon Zabala Joxemiel Barandiaran Eskolako Zuzendari eta Ikasketa Burua hurrunez-urrun.

Saio eta elkarrizketa hauen helburua, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde udalerriaren jarraitu beharreko lan ildoen zehaztea izan zen. Herriaren errealitatetik abiatuta, ekintzak proposatzea eta ekintza hauek aurrera eramateko konpromisoak hartzea.

Saioetan eta elkarrizketetan berdintasunaren inguruan Ataunek dituen erronkak landu ziren. Erronka hauei aurre egiteko proposamen zerrenda osatuz. Ekintza guztiak taldean landu eta onartu ziren. Lan taldeetan sortutako kezka eta zalantzak ere kontutan izan dira plana idazterakoan.

## 2 Fasea: Jasotakoaren lanketa eta Berdintasun Planaren Zirriborroa

Bi saioetan  eta elkarrizketetan jasotakoan oinarrituta, Farapitik **Ataungo 1go Berdintasun Planaren zirriborroa** osatu da.

## 3 Fasea: Kontraste eta konpromezu bilera

Udal ordezkaritza politikoarekin egindako lan bilera.

**Kontraste eta konpromezu bilera**
**Eguna:**

| Parte-hartzaileak | Ardura: |
|---|---|
| Asier Rodriguez | Alkatea (EHBildu) |
| Aitor Arruabarrena | Hirigintza eta Turismoa (EHBildu) |
| Karmele Aierbe | Kultura, Euskara eta Kirola (EHBildu) |
| Mielmari Jauregi | Mendia(EHBildu) |
| Iraitz Goikoetxea | Gizarte Ongizatea, Herritarren Parte hartzea eta Berdintasuna (EHBildu) |
| Amaia Auzmendi | (Herrigintza) |
| Oihana Medizabal | (Herrigintza) |

## 4 Fasea: Aurkezpen publikoa eta onarpena

2018ko Urtarrilean egiteko utzi da Batzar Herritarra, plana aurkeztu eta azken ekarpenak jasotzeko.

Bestalde, 2018ko Martxorako utziko da Udal Plenoan onartzea.  Bestalde, Udal ordezkariekin egindako kontraste bileran aho batez onartu zen Udalean Gobernu aldaketa ematen bada, berriro ere plana aurkeztu eta onartuko dela. Garrantzitsua iruditzen zaile hartutako konpromezuei jarraipena ematea.

# ATAUNGO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 1GO PLANA

## 2018-2021

# 1. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA HOBETZEKO BIDEAK

Udalerri batean emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko pausuak emateko, beharrezkoa da aukera berdintasunerako politikak udal arlo guztietatik zeharkakotasunez bultzatzea.

Ataungo Udalak orain arte izan duen ibilbideari esker, ordezkari politikoak eta udal langileak motibaturik agertzen dira euren arloetan berdintasun politikak bultzatzeko, udaleko arlo eta zerbitzu guztietan genero ikuspuntua sartzeko.

Emakundeko VI. Berdintasun Planaren arabera, Berdintasunaren aldeko Gobernantza hobetzeko neurriak 13 multzotan sailkatzen dira.

- G1: Berdintasunerako plangintza areagotzea eta hobetzea
- G2: Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea
- G3: Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea
- G4: Estatistika eta azterlanetan genero ikuspegia txertatzea
- G5: Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia txertatzea
- G6: Enplegu publikora sartzeko eta bertan sustatzeko hautaketa prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.
- G7: Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea
- G8: Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea
- G9:Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea
- G10: Sektorekako eta zeharkako planetan genero ikuspegia sartzea
- G11: Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea
- G12: Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea
- G13: Kontsultarako eta parte-hartzeko organoetan genero ikuspegia sartzea

## G1. Berdintasunerako Plangintza Areagotzea eta Hobetzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ataungo I.go Berdintasun Plana udal teknikari eta politikarien artean zabaldu hauentzako lanerako tresna izan dedin | ONGIZATEKO ZINEGOTZIA | | | | | ---- | • Planaren zenbat kopia atera eta banatu diren |
| AtaungoI.go Berdintasun Plana herriko eragile eta norbanakoen artean hedatu, Udalaren eta herri eragileen artean berdintasuna bultzatzeko hasitako lankidetzari jarraipena emanez. | ONGIZATEKO ZINEGOTZIA | | | | | ----- | • Planaren zenbat kopia atera eta banatu diren (eta nori) |
| Plana abian jartzeko Aholkularitza tekniko baten babesa izan | ONGIZATEKO ZINEGOTZIA | | | | | 1.500 | • Aholkularitza teknikoa egon den edo ez.<br>• Aholkularitza teknikoarekin izandako bilera kopurua eta partehartzaileak |
| I.go Berdintasun plana herriko berdintasun politiken erreferentzi bilakatu | UDAL GOBERNUA ETA UDAL TEKNIKARIAK | | | | | ----- | • Zenbat aldiz aipatzen diren (idatziz, prentsan, etab.) Berdintasun Planean jasotako neurriak |
| Udaleko Web-gunean 1go Berdintasun planari dagokion atal bat jarri (plana bera eskuratzeko, | ONGIZATEKO ZINEGOTZIA | | | | | ----- | • Lehioa jarri den edo ez<br>• Zenbat bisita edo kontsulta izaten dituen<br>• Planaren garapenarekin |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| jarraipena egiteko, etab.) | | | | | | | zerikusia duten zenbat berri/dokumentu zintzilikatzen diren<br>• Zenbat deskarga egiten diren |

## G2. Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Goierriko herri ezberdinetako arduradun politikoekin eskualdean berdintasun politikak bultzatzeko egon daitezkeen beharren inguruko gogoeta bat egin | ALKATEA | | | | | ----- | • Udal ezberdinetako ordezkariekin egindako bilera kopurua<br>• Beharrak jasotzen dituen dokumentu bat egin eta adostu den |
| Eskualdeko Garapen Agentziari, GOIEKIri, Udalerri txikietan berdintasun politikak sustatzeko Berdintasun Teknikari baten beharrari buruzko azterketa egin dezala eskatu | ALKATEA | | | | | ----- | • Azterketa egin den |

## G3. Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I.go Berdintasun Planaren jarraipenerako **koordinazio egitura sortu** | ONGIZATEKO ZINEGOTZIA (aholkularitza teknikoaren babesarekin) | | | | | ----- | • Egitura sortu den edo ez. |
| I.go Berdintasun Planaren jarraipenerako koordinazio egitura indartu | UDAL GOBERNUA (aholkularitza teknikoaren babesarekin) | | | | | ----- | • Zeintzuk parte hartzen duten koordinazio-mahai horretan<br>• Zenbatero biltzen diren |
| Joxemiel Barandiaran Eskolarekin elkarlana indartu (berdintasunaren inguruan egiten ari direla ezagutu eta ahal den neurrian babestu). Udalaren eta eskolaren arteko koordinazioa sistematizatuEskolako Bizikidetza Behatokian parte hartuz. | ALKATEA | | | | | ----- | • Koordinazioarako egin diren bilera kopurua.<br>• Elkarlanean egin diren ekintza kopurua<br>• Bileretan parte hartu duten emakume eta gizonen kopurua |
| Berdintasun Planari erreferentzi egingo dion lema/logo bat sortu herritarren artean ideia lehiaketa bat eginez eta udaleko hainbat komunikazio elementutan txertatu (web-gunea, festa programa, etab.) | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | 200 | • Zenbat logo/lema proposatu diren.<br>• Zenbat komunikazio elementutan txertatu diren. |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Urte hasieran (koordinazio-mahia), gainontzeko udal sailetako ordezkariekin bildu urteko horretan dagozkien berdintasun ekintzen inguruko plangintza adosteko. | ONGIZATEKO ZINEGOTZIA (Aholkularitza teknikoaren babesarekin) | | | | | ----- | • Zenbat sailekin elkartu diren<br>Zenbat plangintza adostu dituzten. |

## G4. Estatistika eta azterlanetan genero ikuspegia txertatzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Egun, Udalean herritarren datu bilketarako erabiltzen diren dokumentuak aztertu eta sexuaren aldagaia sartzeko proposamenak egin[2] | UDAL ADMINISTRARIAK | | | | | ----- | • Aztertutako dokumentu kopurua |
| Udaleko agirietan datuak sexuaren arabera banatuta jaso | UDAL LANGILEAK | | | | | ----- | • Datuak sexuaren arabera jaso diren dokumentu kopurua<br>• Datuak sexuaren arabera jaso ez diren dokumentu kopurua |

[2] Dokumentuetan ohar bat txertatu herritarrak jakin dezan datu hori estatistikak egiteko eskatzen zaiola.

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Udalari eskatutako diru-laguntza eskaeretan eta justifikatzeko memorietan sexuaren arabera banatutako datuak jasotzeko irizpideak eman herriko elkarteei. | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | ----- | • Ezarritako irizpideak (kopurua)<br>• Jasotako datu kopurua sexu bereizketa eginez<br>• Jasotako datu kopurua sexu bereizketa egin barik<br>• Informazioa eman zaien elkarte kopurua<br>• Ezarritako irizpideak jarraitu dituzten elkarte kopurua.<br>• Jarritako irizpideen inguruko elkarteen balorazioa. |
| Herri egiten diren zinema emanaldietan (egun kopurua jasotzen den moduan) ikuslegoaren sexua ere jaso. Bilketa hori egiteko dokumentu eredu bat sortu | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | ----- | • Datu bilketarako dokumentua sortu den edo ez<br>• Datuak sexuaren arabera jasotzen diren edo ez |
| Jasotzen diren datuen azterketa egin, beharrezekoa balitz emakume eta gizonen aukera berdintasuna bermatzeko aldaketak egiteko | UDAL GOBERNUA ETA UDAL LANGILEAK (Aholkularitza teknikoaren babesarekin) | | | | | ----- | • Azterketa saioak egiten diren edo ez<br>• Proposatutako aldaketa kopurua |

## G5. Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia txertatzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Udal teknikari eta politikoek haien jardunean genero ikuspegia txertatzeko izan ditzaketen formakuntza beharrak identifikatu eta hauei erantzuna eman | AHOLKULARITZA TEKNIKOA | X | | | | 300 | • Udal sail ezberdinetan identifikatutako behar kopurua<br>• Hauei erantzuna emateko proposatutako formazio kopurua<br>• Formazioetan parte hartu dutenen kopurua (sexua bereiztuta) |
| Herriko elkarte eta eragileek haien jardunean genero ikuspegia txertatzeko izan ditzaketen formakuntza beharrak identifikatu eta hauei erantzuna eman | AHOLKULARITZA TEKNIKOA | X | | | | 300 | • Herriko elkarte eta eragile ezberdinetan identifikatutako behar kopurua<br>• Hauei erantzuna emateko proposatutako formazio kopurua<br>• Formazioetan parte hartu dutenen kopurua (sexua bereiztuta) |
| Genero ikuspegia txertatzeko egon litezkeen material, gida eta antzerakoak sistematizatu eta interesa izan dezakeen edonoren eskura jarri | AHOLKULARITZA TEKNIKOA | | X | X | | ----- | • Zenbat gida edo errekurtsoren zabalkundea egin den<br>• Zabalkunde hau burutzeko egindako ekintza kopurua |
| Udaletik, hainbat gaien inguruan eskaini daitezkeen formazioetan genero ikuspegia txertatuko dela | UDAL GOBERNUA | | | X | X | ----- | • Udaletik eskaini den formakuntza kopurua<br>• Formakuntza hauetan |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| baloratu | | | | | | | genero ikuspegia txertatu den kopurua |

## G6. Enplegu publikora sartzeko eta bertan sustatzeko hautaketa prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lan deialdi publikoetan berdintasunaren inguruan sartu litezkeen edukien inguruko gogoeta eta aukeraketa egitea | UDAL GOBERNUA (aholkularitza teknikoaren babesarekin) | | | | | 1000 | • Aukeraketa hori egiteko egin den bilera kopurua<br>• Bilera horietan zenbat pertsonek (eta zein udal ardurekin) parte hartu duten |
| Lan-deialdi publikoetako gaitegian berdintasunarekin lotutako edukiak sartu | UDAL GOBERNUA (aholkularitza teknikoaren babesarekin) | | | | | ----- | • Identifikatutako enplegu publikoko deialdi kopurua<br>• Deialdi bakoitzean sartutako gai kopurua<br>• Berdintasunarekin lotutako edukiak sartu ez diren deialdi kopurua. |

## G7. Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hizkuntza edo/eta bestelako komunikazio elementu batzuk modu ez sexistan erabiltzeko gidak helarazio udal arlo guztiei | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | ----- | • Banatutako gidaliburu kopurua<br>• Erabilera ez sexistarako gidaliburuaren inplementazioa<br>Arlo ezberdinen balorazioa egindako difusioaren inguruan. |
| Aztertu arloak ekoizten dituen dokumentu publikoak eta ezabatu euretatik hizkera, eduki eta irudi sexistak | UDAL IDAZKARIA | | | | | ----- | • Hizkera eta eduki sexistak erabili dituzten dokumentu kopurua.<br>• Proposatutako zuzenketa kopurua<br>• Egindako zuzenketa kopurua<br>• Aztertzeko eskatutako dokumentu kopura. |
| Herriko elkarte eta zerbitzuei hizkuntza edo/eta bestelako komunikazio elementu batzuk modu ez sexistan erabiltzeko gidak helarazi | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | ----- | • Antzemandako elkarte eta pertsona kopurua (emakume eta gizonak)<br>• Pertsonen balorazioa<br>• Aholku kopurua |
| Enplegu publikoko deialdietan hizkuntza eta edukien erabilpen ez sexista egin | UDAL IDAZKARIA | | | | | ----- | • Enplegu publikoko deialdi kopurua<br>• Hizkuntza eta edukien erabilpen ez sexista egiten den deialdi kopurua.<br>• Hizkuntza eta edukien erabilpen sexista egiten den |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | deialdi kopurua. |

## G8. Araudian berdintasunaren printzipio txertatzea

Momentuz ez da ekintzarik proposatzen neurri honen garapenean.

## G9. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Udal aurrekontua genero ikuspegitik aztertzeko proiektu pilotu bat egin | UDAL GOBERNUA eta UDAL IDAZKARIA (Aholkularitza teknikoaren babesarekin) | | | | | 3000 | • Proiektua egin den edo ez<br>• Zein udal sailekin egin den.<br>• Aztertutako diru-partida kopurua<br>Proposatutako aldaketa kopurua |

## G10. Sektorekako eta zeharkako planetan genero ikuspegia sartzea

Momentuz ez da ekintzarik proposatzen neurri honen garapenean.

## G11. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ordenantza orokorrean genero irizpideak sartu kanpo kontratazioko eta diru-laguntzetako | UDAL GOBERNUA eta UDAL IDAZKARIA (Aholkularitza teknikoaren babesarekin) | | | | | 1000 | • Ezarritako genero irizpideak identifikatu<br>• Genero irizpideak betetzen dituztela egiaztatzen den eskabide eta lizitazio kopurua.<br>• Eskabidea egiteko ezarritako irizpideak betetzen ez dituzten eskabide kopurua.<br>• Aurreikusitakoak ez diren beste genero irizpide batzuk erabiltzen dituzten eskabide kopurua.<br>• Diruz lagundutako entitate eta pertsona kopurua.<br>• Ezarritako irizpideekin diruz lagundutako eskabide portzentaia.<br>• Emandako diru kopurua ezarritako irizpideak dituzten eskabideak. |
| Herriko Elkarte eta eragile ezberdinekin lanketa bat egin diru-laguntzak eskuratzerako garaian txertatuko diren genero irizpideak ezagutu eta adosteko | KULTURA ZINEGOTZIA ETA KULTUR DINAMIZATZAILEA (Aholkularitza teknikoaren | | | | | 200 | • Lanketa egiteko burutu diren saio kopurua<br>• Partehartzaileak sexuaren arabera<br>• Adostutako irizpideak |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | babesarekin) | | | | | | |
| Ordenantza orokorrean genero irizpideak sartu herriko elkarteei diru-laguntzak emateko | KULTURA ZINEGOTZIA ETA KULTUR DINAMIZATZAILEA (Aholkularitza teknikoaren babesarekin) | | | | | ----- | • Ezarritako genero irizpideak identifikatu<br>• Genero irizpideak betetzen dituztela egiaztatu den eskabide eta lizitazio kopurua.<br>• Eskabide egiteko ezarritako irizpideak erabiltzen ez dituzten eskabide kopurua.<br>• Aurreikusitakoak ez diren beste genero irizpide batzuk erabiltzen dituzten eskabide kopurua.<br>• Diruz lagundutako entitate eta pertsona kopurua.<br>• Ezarritako irizpideekin diruz lagundutako eskabide portzentaia.<br>• Emandako diru kopurua ezarritako irizpideak dituzten eskabideak |
| Kanpo kontratazioko kasuetan klausula bat sartu gaitasun berdintasuna dagoenean gutxien ordezkatutako sexua kontratatzeko. | UDAL GOBERNUA ETA UDAL IDAZKARIA | | | | | ----- | • Eskaintza edo enplegu publikoen irizpideak identifikatu.<br>• Klausula ezarri ez den eskaintza kopurua.<br>• Zenbat aldiz erabili da klausula |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | Klausula erabili izan den eskaintzetan izandako eragina. |
| Aisialdiko zerbitzuak kontratatzerakoan (eskola orduz kanpoko jarduerak, udalekuak...) kontu egin kontratatzen den antolakundeak hezkidetza irizpideak betetzen dituela. Pertsonak direnean ordea hezkidetza formazioa izatea baloratzea. | UDAL GOBERNUA ETA UDAL IDAZKARIA | | | | | ----- | • Kontratazio eta ekintzak identifikatu<br>• Identifikatutako hezkidetza irizpideak<br>• Lizitazioetan ezarritako irizpideak<br>• Kontratazioetan erabilitako irizpideak<br>• Irizpide honek erabiltzen dituzten entitate kopurua<br>• Irizpide honek erabiliz egiten diren kontratazio kopurua<br>• Hezkidetza irizpideak erabiltzen ez dituztenen kontratazio kopurua. |

## G12. Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatu sustatzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Udaletik abian jarri litekeen edozein lehiaketatan epaimahaien emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua egotea | KUTURA ZINEGOTZIA eta KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | ----- | • Egin diren lehiaketa kopurua<br>• Egon diren epaimahaikideak sexuaren arabera |

## G13. Kontsultarako eta parte-hartzeko organoetan genero-ikuspegia sartzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Parte hartzeko prozesuak gidatzeko kanpo kontratazio bat egiten dugunean genero ikuspegia lantzen dutela bermatzea | PARTAIDETZAKO ZINEGOTZIA | | | | | ----- | • Abian jarri diren partehartze prozesu kopurua<br>• Kanpo kontratazio bitartez gidatu diren prozesu kopurua<br>• Kanpo kontratazioaren bidez genero ikuspegia bermatu den prozesu kopurua |
| Parte hartzeko prozesuetan Berdintasun arloan diharduten gizarte zibileko erakundeek parte hartzen dutela bermatzea | PARTAIDETZAKO ZINEGOTZIA | | | | | ----- | • Abian jarri diren partehartze prozesu kopurua<br>• Partehartzaileen artean erakunde edo talde feministak izan dituzten prozesuen kopurua |

# 2. EMAKUMEEN AHALDUNTZE ETA BALIOAK ALDATZEAREN ARDATZA

Emakumeen jabekuntza handitzea erronka garrantzitsua da Ataungo herriarentzat. Jabekuntzak “botere eskuraketa” suposatzen du, emakumeek euren posizio politiko, ekonomiko eta soziala indartzea. Erabaki eta botere prozesuetan emakumeen partehartzea handitzea ahalbideratuko duen banakako eta taldeko kontzientzia pizteko prozesua da jabekuntza.

Emakundeko VI. Planaren arabera ezinbestekoa da berdintasun politikak bultzatzerako garaian balioen aldatzean eta emakumeen ahalduntzean eragitea. Bi ildoak, balio aldaketak eta ahalduntzeak, elkar eragiten duten benetako eraldaketa soziala bilatzerako bidean.

Ardatz hau lantzeko **4 programa** proposatzen dira emakundetik:

- **Balioak aldatzea**: Balioak daude edozein gizarteren oinarrian eta hauen araberako gizartea (eta emakume eta gizonen arteko harremanak) eraikiko ditugu. Balioak aldatzea ez da soilik epe luzerako helburu bat, gizarte ez androzentriko eta partriarkal bat sortzeko lan-esparru konkretua da.
- **Norbanakoen ahalduntzea babestea:** Ahalduntze prozesuak kanpotik babestu badaitezke ere, ahalduntzea norbanako bakoitzak egin behar duen prozesu bat da. Programaren helburua prozesu horretan emakumeak babestea da, haien autonomia eta heuren bizitzen gaineko kontrola lortzen laguntzea.
- **Kolektiboen ahalduntzea babestea:** Garrantzitsua da aldi berean emakumeen ahalduntze kolektiboan ere lan egitea, emakume gisara partekatzen duten egoeraren (gizonekiko menpekotasuna) jabe izan eta aldaketarako subjektu/kolektibo aktibo bilakatzeko.
- **Ahalduntze sozial eta politiko babestea:** Ahalduntze sozial eta politikoaz dihardugunean emakumeek herritar gisara dituzten eskubide guztiak bermatzeaz ari gara. Gizarte zibileko edozein esparrutan partehartzeaz gain, esparru politikoan, erabaki eta botere guneetan, partehartzeko izan ditzaketen oztopo guztiak gainditzera bideratutako programa da.

## 1.go programa: Balioak aldatzea

### 1.1. Balioak aldatzea sustatzea, pertsonei sexuaren arabera emandako genero estereotipoak eta rolak ezabatuz azpigrograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Herriari begira egiten diren ekintzetan, Udala ordezkatu behar denean, presentzia parekidea izango dela bermatu | UDAL GOBERNUA | | | | | ----- | • Zenbat jarduera publikoetara joan behar izan diren.<br>• Zenbat alditan joan den talde parekide bat<br>• Zenbat alditan ez den joan talde parekide bat. |
| Herriko eragile ezberdinetatik herriari begira antolatzen diren ekintzetan presentzia parekidea bilatzea | KULTUR DINAMIZATZAILEA eta HERRI ERAGILEAK | | | | | ----- | • Zenbat jarduera publikoetara joan behar izan diren.<br>• Zenbat alditan joan den talde parekide bat<br>• Zenbat alditan ez den joan talde parekide bat. |
| Herrian, emakumeen eskubideen alde egiten den edozein ekimenetan, Udal ordezkarien presentzia bermatu. | UDAL GOBERNUA | | | | | ----- | • Zenbat jarduera egin diren herrian, zenbatetan izan duten ekintza hauek babes politikoa (bi alderdiena) |
| Jentilen Etorrerako arduraduneei babesa ekaini, generoaren inguruan egiten ari diren gogoetarekin jarraitzeko (emakume eta gizonen presentzia, rolak, etab.) | KULTURA DINAMIZATZAILEA | | | | | | • Gaia lantzeko egindako bilera kopurua.<br>• Lortutako adostasun/aldaketa kopurua |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hezkidetza arloko prestakuntza eman herrian eskola orduz kanpoko zein aisialdiko jarduerak antolatzeko ardura duten lagunei | KULTURA ETA KIROL ZINEGOTZIA | | | | | 300 | • Zenbat pertsona identifikatu diren prestakuntza jasotzeko<br>• Zein laguntza mota eman den.<br>• Zenbat emakume eta gizonek jaso duten formazioa.<br>• Egin den balorazioa |
| Liburu Azokara ekartzen diren hizlarien artean parekidetasuna bilatzea | LIBURU AZOKAREN ANTOLATZAILEAK | | | | | ----- | • Gonbidatu diren hizlari kopurua<br>• Emakume kopurua<br>• Gizon kopurua |
| Udaleku irekietarako kontratazioan hezkidetza kurtsoa izatea baloratu | UDAL IDAZKARIA | | | | | ----- | • Zenbat begirale aurkeztu diren hezkidetza kurtsoarekin<br>• Zenbat begirale aurkeztu diren hezkidetza kurtsorik gabe.<br>• Kontratatu diren begiraleen artean zenbatek zuten hezkidetza kurtsorik eta zenbatek ez. |
| Herriko gazteekin (neska eta mutilak) lan-saio ezberdinak egin aukera berdintasuna lantzeko. (lan-saioak elkarrekin edo neska eta mutilak banatuta egin litezke) | GAZTERIA TEKNIKARIA | | | | | 600 | • Egin diren saio kopurua<br>• Saioetan parte hartu duten neska eta mutil kopurua<br>• Egin den balorazioa |
| Eskola kirolaren inguruan mugitzen | KULTURA ETA | | | | | 300 | • Formakuntza eskaini den |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| diren gurasoei hezkidetzaren inguruko formazioa eman | KIROL ZINEGOTZIA | | | | | | edo ez<br>• Zenbat amek eta aitek parte hartu duten<br>• Beren balorazioa |
| Guraso elkarteko kidei hezkidetza formazioa eman | JOXEMIEL BARANDIARAN ESKOLA | | | | | 300 | • Zenbat amek eta zenbat aitek parte hartu duten<br>• Beren balorazioa. |
| Guraso elkartetik urtean zehar antolatzen diren ekintzetan (haurrentzako jolasak etab.) lan banaketa estereotipatua saihestea | JOXEMIEL BARANDIARAN ESKOLAKO GURASO ELKARTEA | | | | | ----- | • Guraso elkartetik antolatu diren ekintza kopurua<br>• Lan banaketa EZ estereotipatua izan duten ekintza kopurua<br>• Lan banaketa estereotipatua izan duten ekintza kopurua |
| Irakurle taldean lantzen diren liburuen egileen artean parekidetasuna bilatzea | IRAKURLE TALDEA | | | | | ----- | • Irakurritako liburu kopurua<br>• Emakumezko egile kopurua<br>• Gizonezko egile kopurua |
| Liburu azokara ekartzen diren liburuen artean emakumezko egileak dituztenak ere ekartzea (ahalik eta kopuru parekatuenean) edo/eta parekidetasun gaiak lantzen dituzten liburuak ekartzea | LIBURU AZOKAREN ANTOLATZAILEAK | | | | | ----- | • Gizonezko egileak dituzten liburuen gutxi gora-beherako portzentaia.<br>• Emakumezko egileak dituzten liburuen gutxi gora-beherako portzentaia.<br>• Genero edo berdintasun gaiak lantzen dituzten liburuen gutxi gora- |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | beherako portzentaia |
| Udala, Udal liburutegia eta Herriko Eskolaren arteko elkarlanari esker Liburu ez sexisten aholku kanpainarekin jarraitu | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | | • Kanpainaren barruan egin diren ekintza kopurua<br>• Ekintza bakoitzean parte-hartzen duten pertsona kopurua (sexuaren arabera) |
| Udal liburutegian, haurrentzako txokoan, berdintasunean hezitzeko liburu bilduma bat egin. | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | | • Txokoa egin den edo ez, zenbat liburu dauden txokoan. |

## 2. Programa: Ahalduntze pertsonala laguntzea

### 2.1 Emakumeen autoestimua konpontzen eta garatzen laguntzea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Herriko emakumeen historia berreskuratzeko ekimenak egiten jarraitu (Joxemartin Apalategi Bekaren bitartez esaterako) | KULTURA ZINEGOTZIA | | | | | ----- | • Zenbat ekimen egin diren |
| Herriaren dinamikan garrantzitsuak izan diren emakumeak omendu hauek egindako lana publikoki eskertuz (Berdintasun Sari bat esaterako) | KULTURA ZINEGOTZIA | | | | | 200 | • Zenbat emakume proposatu diren<br>• Zenbat emakume omendu diren |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeen presentzia kaleetan, monumentuetan eta eraikuntza adierazgarrietan indartzeko helburua duten proposamenak formulatu eta proposamen hauek kontutan hartu. | UDAL GOBERNUA eta ARKITEKTOA | | | | | ----- | • Zenbat gizon eta emakumek parte hartu duten.<br>• Zenbat leku identifikatu diren<br>Zenbat aitortza egon diren |
| Atauniker eta Murkondo elkarteak egiten ari diren kartel bilketaren generoaren araberako analisia egin | KULTUR DINAMIZATZAILEA, ATAUNIKER eta MURKONDO | | | | | ----- | • Kartel erakusketa egin den edo ez<br>• Erakusketan generoaren inguruko gogoeta egin den edo ez |

## 2.2.Genero kontzientzia bultzatzea eta emakumeen autonomiaren garapena sustatzea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Martxoak 8a ospatzen jarraitu (horretarako herriko beste eragileekin lankidetza harremanak sortzen Joan, batez ere Biboletak talde feministarekin) Herri programa bateratu bat osatu | ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | ----- | • Zenbat gizon eta emakumeek partehartu duten ospakizunetan.<br>• Zenbat elkarte/eragilek parte hartu duten |
| Liburutegian "Txoko Feminista" sortzea | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | ----- | • Berdintasun edo/eta feminismoaz hitz egiten duten zenbat liburu ekuratu diren.<br>Zenbat erabiltzailek (sexua |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | bereiztuta) eskatu dituzte liburu hauek. |
| Liburutegian egiten den liburu erosketarako irizpideak definitzea (eta hauetan emakumeen ekoizpena edo/eta gai feministak lehenestea) | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | | • Irizpideak definitu diren edo ez. |
| Herriko Jaien inguruko diagnosia egin genero ikuspegitik | KULTURA ZINEGOTZIA<br>AUZOETAKO FESTA BATZORDEAK | | | | | 3500 | • Diagnosia egin den edo ez<br>• Diagnosian parte hartu duten elkarte eta norbanakoen zerrenda sexuaren arabera<br>• Identifikatutako hobekuntza/eraldaketa kopurua |
| Herriko jaien (hiru auzoetakoen) diagnosian ateratako ondorietatik aldaketak txertatzea jaiak berdintzaleagoak izan daitezen | KULTURA ZINEGOTZIA<br>AUZOETAKO FESTA BATZORDEAK | | | | | ----- | • Egin diren aldaketa kopurua |
| 14-16 urte bitarteko gaztetxoekin "festa-ibiltariak egitea" jaien esparruan dituzten portaeren inguruko lanketa egiteko | GAZTERIA TEKNIKARIA | | | | | 800 | • Ekintz egin den edo ez<br>• Zenbat gaztetxok parte hartu duten (sexuaren arabera)<br>• Nola baloratzen dute |
| Beren burua hobeto zaindu dezaten | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | 200 (urteko) | • Egindako ekintza kopurua |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ekintza ezberdinak egin Ataungo Emakumeekin (kirol ekintzak, elikaduraren inguruko lan-saioak, etab. ) | , GAZTERIA TEKNIKARIA eta GIZARTE LANGILEA | | | | | | • Ekintza bakoitzean parte hartu duen emakume kopurua |
| Ekainak 28, aniztasun afektibo sexualeraren eguna ospatu | UDAL GOBERNUA | | | | | ----- | • Zenbat gizon eta emakumeek partehartu duten ospakizunetan.<br>• Zenbat elkarte/eragilek parte hartu duten |
| Herriko neska-mutikoentzako aisialdi ekintza bateratuak prestatu (berariaz ematen den generoaren araberako banaketa gainditzeko) Irteerak, kirol ekintzak, etab. | GAZTERIA TEKNIKARIA | | | | | ----- | • Zenbat ekintza bateratu prestatu diren.<br>• Parte-hartzaileak (sexuaren arabera)<br>• Hauen balorazio |

## 3. Programa: Ahalduntze kolektiboa laguntzea

### 3.1. Emakumeen laneratzea eta lan baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea, taldeen eta egoera aniztasuna kontuan hartuta azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskualdeko Garapen Agentziarekin, GOIEKI; lankidetza areagotu eta sistematizatzea emakumeen laneratze eta lan-baldintzen | ALKATEA | | | | | ----- | • Lankidetzarako espazio hauek sortu diren edo ez<br>• Zenbatero bildu garen<br>• Emakumeen laneratzea eta lan-baldintzak hobetzeko |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| hobekuntzarako lanketa egiteko | | | | | | | akordiorik egin den |

### 3.2. Pobrezia edo/eta bazterkeria egoeran dauden emakumeen kopurua murriztea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ataunen, bazterkeria egoeran egon litezkeen herritarren inguruko ikerketa lan bat egin foko berezia jarriz emakumeengan | ONGIZATE ZINEGOTZIA eta GIZARTE LANGILEA | | | | | 4000 | • Ikerketa egin den edo ez<br>• Ikerketan zeintzuk parte hartu duten (sexuaren eta ardura postuaren arabera) |
| Ikerketatik ateratako ondorioetatik abiatuta emakume hauen egoerak hobetzeko ekintza plan bat garatu | ONGIZATE ZINEGOTZIA eta GIZARTE LANGILEA | | | | | 2500 | • Ekintza plana egin den edo ez<br>• Ekintza planean jasotako jarduerak garatu diren edo ez |

### 3.3. Emakumeek gizarte baliabideak eskuratzeko aukera hobetzea, batez ere erabilera desberdintasun handia duten horietan, eta askotariko diskriminazio egoerei arreta handia jarriz azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Osasungintzan lan egiten duten profesional guztiei osasuna eta generoaren inguruko formazioa eman emakumeen beharretara | ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | 300 | • Zenbat profesionalek parte hartu duten.<br>• Parte hartzaileen balorazioa.<br>• Zenbat saio egin diren |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| hobeto egokitzeko | | | | | | | • Zerbitzua erabiltzen dutenen balorazioa. |
| Ataunen eskaintzen diren kirol, asialdi eta kultura zerbitzuak aztertu emakumeen behar eta nahietara hobeto egokitzeko (esaterako liburutegian edo zinean inkesta bat bestez) | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | ----- | • Azterketa egin den edo ez<br>• Azterketaren ondorioaz propposatu diren hobekuntzak |
| Babesa eman Mankomunitatearen/bailaran eta Aldundiaren aurrean menpekotasunez jotako pertsona eta euren senitartekoentzako zerbitzuak eta baliabideak eskatzeko egiten diren ekimen guztietan. | UDAL GOBERNUA | | | | | ----- | • Identifikatutako zerbitzuan eta errekurtsoen eskari kopurua.<br>• Egindako eskarien modu, denbora, eduki eta aurrekontua.<br>• Egindako ekimenenen modua, denbora, edukia eta aurrekontua. |

## 4. Programa: Ahalduntze sozial eta politiko laguntzea

### 4.1. Emakumeek elkarteen mugimendua sustatzea eta emakumeak horietan parte hartzera bultzatzea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeen partehartze aktiboa bultzatu jaien antolakuntzan | KULTURA ZINEGOTZIA eta AUZOETAKO JAI | | | | | ----- | • Herriko jaiak antolatzen dituen batzordean parte hartzen duten emakume eta |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | BATZORDEAK | | | | | | gizon kopurua.<br>• Ekintza bakoitzean parte hartu duten emakume eta gizonen kopurua edo portzentaia. |
| Herriko Biboletak talde feminista babestu eta elkarlan eta koordinazioa hobetu | ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | ----- | • Burutu dituzten ekintza kopurua<br>• Udalarekin elkarlanean antolatu diren ekintza kopurua<br>• Partehartzaileen kopurua sexuaren arabera |
| Emakumeak herrian dauden elkarteetan partehartu dezatela bultzatu | KULTUR DINAMIZATZAILEA eta HERRIKO ELKARTEAK | | | | | ----- | • Zenbat ekintza burutu diren helburu hau lortzeko.<br>• Zenbat emakume berri sartu diren elkarteetan urtez urte.<br>• Zenbat emakume joan diren elkarteetatik urtez urte |

## 4.2. Erabaki eta eragin guneetan emakumeen presentzia eta partaidetza handitzea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ziurtatu genero irizpideak txertatzen direla hiritarren parte hartzea bultzatzeko hemendik aurrera herrian abiatzen diren prozesu guztietan | PARTAIDETZA ZINEGOTZIA | | | | | ----- | • Identifikatutako prozesu parte hartzaile kopurua<br>• Identifikatutako irizpide kopurua<br>• Aplikatutako irizpide kopurua<br>• Parte hartu duten |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | emakume eta gizonen kopurua. |

# 3. GIZARTE ANTOLKUNTZA ERANTZUKIDEA

Emakume eta gizonen berdintasunerako bidean, bizitza pertsonala, familiarra eta laborala uztartzeko neurriak lehentasunezkoak dira. Oraindik ere erantzunkidetasunaz hitz egiten dugunean badirudi bakarrik emakumezkoi zuzendutako neurriez ari garela, hauek izan baitira orain arte familiaz eta etxeaz arduratu direnak. Baina, gauzak aldatu behar dira eta erantzunkidetasunaz hitz egiten dugunean etxeko pertsona guztiak izan behar dira kontutan, norbere buruaren zaintza bultzatuz, besteen zaintzaren ardura partekatuz eta bizitzaren mantenua guztien ardura dela ulertaraziz.

Aldaketa sozial erantzukidearen ardatzan bi programa bultzatzen dira:

- **Erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera berriak**: Emakumeak eta gizonak modu orekatuan produkziozko eta erreprodukziozko lanean parte hartzea, denboraren erabilera emakumeen eta gizonen artean modu berrian banatze aldera.
- **Kontziliazio erantzunkidea**: Estatuaren eta merkatuaren aldetik erantzukidetasun handiagoa lortzeko neurriak ezartzea, batez ere, etxeko lanei eta zaintza lanei dagokionez.

## 5. Programa: Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera berriak

### 5.1. Erantzukidetasuna eta zainketaren etika sustatzea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| "Zaintzaren egunerokoak"<br><br>Zaintza gizonezkoen ardura ere badela ulertarazteko kanpaina bat abiatu | ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | 400 | • Kanpaina zabaltzeko identifikatutako leku kopurua<br>• Kanpainak izandako harrera<br>• Kanpainaren balorazioa |
| Aitatasun aktiboaren aldeko kanpaina bat abiatu | ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | 300 | • Kanpaina zabaltzeko identifikatutako leku kopurua<br>• Kanpainak izandako harrera<br>• Kanpainaren balorazioa |
| Saiatu kartel, foileto eta agiri publikoetako irudiek ez dezatela indartu genero bereizketa eta bultzatu dezatela erantzunkidetasuna | UDAL GOBERNUA, UDAL LANGILEAK eta HERRIKO ELKARTEAK | | | | | ----- | • Identifikatutako kartel sexista kopurua<br>• Erantzunkidetasuna bultzatzen dituzten kartel kopura<br>• Kartel sexistak zuzentzeko ezarritako irizpide kopurua<br>• Egindako zuzenketa kopurua |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aiton-Amonek guztien bizirauten duten papera bisibilizatu. | ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | 350 | • Zenbat ekintza egin diren<br>• Parte hartzileen kopurua sexuaren arabera.<br>• Parte hartzaileen balorazioa<br>• Zenbat ekintza posible identifikatu diren. |

## 5.2. Emakumeek aisialdiaz gozatzera eta autonomia/independentzia ekonomikoa lortzera bideratutako denbora handitzea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kultur, kirol eta gainontzeko ekintzetan ordutegiaren egokitasunaz galdetu | KULTURA ETA KIROL ZINEGOTZIA | | | | | ----- | • Zenbat ekintzetan izan den ordutegi aldaketa<br>• Emakumeen partehartzea ekintzan. Emakumeen balorazioa. |
| Bultzatu haurtzaindegi zerbitzuak eskaintzea edota aintzat har daitezela zaintzaileen ordutegiak, berdintasun arlotik edo kultura-kirola eta euskara arlotik antolatzen diren ekintzetan | KULTURA ETA KIROL ZINEGOTZIA, ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | ----- | • Identifikatutako ekintza kopurua<br>• Haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen den ekintza kopura<br>• Zerbitzua erabili duten pertsonen kopurua. Sexuaren aldagaia jasoz.<br>• Zein ordutegitan antolatzen dira ekintzak. |
| Gurasoei, ekintza ezberdinetara | KULTURA ETA KIROL | | | | | ----- | • Sail bakoitzetik zenbat ekintza antolatu diren. |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| haurtxoekin joateko aukera eskaini. | ZINEGOTZIA, ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | | • Zenbat pertsona (emakume eta gizon bereiztuta) joan diren haurtxoekin ekintza hauetara. |
| Adinekoen zaintzan diharduten zaintzaile familiarren (nagusiki emakumeak) egoera gehiago ezagutu eta deskantsurako duten eskubidea landu | ONGIZATE ZINEGOTZIA eta GIZARTE LANGILEA | | | | | 3500 | • Zaintzaileen egoera ezagutzeko zer egin den<br>• Haien beharrei erantzuteko zer planifikatu den |

## 6. Programa: Kontziliazio Erakuntzukidea

### 6.1. Enpresen kultura kontziliazio erantzunkidrantz aldatzea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Udaletik hartutako kontziliazio erantzukidearako neurrien azterketa egitea, langileen beharrak asetzen diren ikusteko. | UDAL GOBERNUA | | | | | ----- | • Azterketa burutu den edo ez |
| Beharrezkoa izango balitz, kontziliazio neurriak areagotzea | UDAL GOBERNUA | | | | | ----- | • Identifikatutako kontziliazio neurriak<br>• Aplikatutako kontziliazio neurriak<br>• Neurri hauen onuradun izan diren pertsona kopurua |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | (gizon emakume kopurua) |

### 6.2. Zerbitzuen ordutegien estaldura eta malgutasuna areagotzea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta emateko zerbitzu soziokomunitarioen eta herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen ordutegian malgutasuna areagotzea, langileen kontziliazio erantzukidea bermatuta. | UDAL GOBERNUA | | | | | ----- | • Zenbat zerbitzu identifikatu diren<br>• Zenbat zerbitzuetan egin diren aldaketak |

### 6.3. Hirigintzako plangintza eta herritarrei zuzendutako zerbitzuak aldatze kontziliazio erantzukidea errazteko azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bermatu irisgarritasuna udal zerbitzu eta baliabideak dauden lokal guztietan | HIRIGINTZA ZINEGOTZIA eta UDAL ARKITEKTUA | | | | | ----- | • Zenbat leku identifikatu diren egokitzeko.<br>• Zenbat udal zerbitzu egokitu diren |
| Herriko eredu urbanistikoa genero ikuspuntutik aztertu, kontuan hartuta hainbat alderdi, haien artean | HIRIGINTZA ZINEGOTZIA eta UDAL | | | | | 4500 | • Zenbat pertsonek parte hartu dute diagnostikoan.<br>• Zein izan den haien |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| zaintza baldintzatu dezaketenak. | ARKITEKTUA | | | | | | balorazioa.<br>• Zenbat gune identifikatu diren<br>• Zenbat neurri zehaztu diren.<br>• Diagnostikoaren memoria. |
| Herriko eredu urbanistikoan identifikatutako proposamenak legean aplikatu. | HIRIGINTZA ZINEGOTZIA eta UDAL ARKITEKTUA | | | | | ----- | • Zenbat lege edo araudi identifikatu diren<br>• Zenbat lege edo araudi aldatu diren |

# 4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea jarraituz (VI. Kapitulua, 50. Artikulua), emakumeen kontrako indarkeria ondoko hau da:

> “Sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan”.

Berdintasunerako VI. Planak horrela azaltzen du ardatz hau; Emakumeen aurkako indarkeria, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazpen larrienetako bat da. Zentzu horretan, ezinbestekoa eta premiazkoa da giza eskubideen urraketa larri eta onartezin horren aurka lan egitea. Horretarako, biktimak babesteko eta haiei arreta eskaintzeko neurriak eta baliabideak sortuz, eta sentsibilizazio eta prebentzioari ekinez.

Ataungo Lehenengo Berdintasun planean holako egoeren kontra lan egiteko asmoz bi lan ildo proposatu dira:

- **Sentsibilizazioa eta prebentzioa**: Sentsibilizazioa eta prebentzioa oinarrizko osagaiak dira emakumeen aurkako indarkeria murrizteko, hura guztiz desagerrarazi arte. Berdintasunean eta elkarbizitzan oinarritutako baloreak sustatzeko neurriez gain, herri antolakuntza egokia bermatzeko ekintzak bildu ditugu.
- **Detekzioa eta Arreta**: Indarkeria biktimen arretarako herri zerbitzuen moldaketa eta hobetzea lortzeko neurriak batu ditugu, horien artean ere prebentzio lanak eta koordinazio sistemak kontutan hartu dira.

## 7. Programa: Sensibilizazioa eta prebentzioa

### 7.1. Indarkeriarik gabeko portaera ereduak bultzatzea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Azaroak 25 Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Nazioarteko eguna ospatu | UDAL GOBERNUA | | | | | ----- | • Zenbat gizon eta emakumek parte hartu duten<br>Zenbat ekintza egin diren |
| Azaroak 25erako egiten den adierazpenarekin bat egitera deitu herriko eragile ezberdinak, sare lana indartu | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | ----- | • Deialdia egin den edo ez, zein eragilek bat egin duen deialdiarekin |
| Azaroak 25aren bueltan programazio integrala egitea (adierazpen instituzional soiletik haratago) | ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | 400 (Urteko) | • Programazio bat osatu den edo ez<br>• Zein ekintza programatu diren<br>• Ekintza bakoitzeko partehartzaileak (sexuaren arabera) |
| Sistematikoki eta publikoki salatu Euskal Herrian gertatzen diren emakumeen aurkako indarkeriazko kasu guztiak | UDAL GOBERNUA | | | | | ----- | • Salatzeko prozedura identifikatu<br>• Gertatutako biolentzia kasu kopurua<br>Egindako salaketak kopurua |
| Ataunen eman litezkeen emakumeen aurkako indarkeria kasuen aurrean modu egoki batean erantzunteko salaketa publikorako protokolo bat | UDAL GOBERNUA eta GIZARTE | | | | | 1800 | • Salaketa protokoloa landu den edo ez<br>• Lanketan zeintzuk parte hartu duten (sexuaren arabera) |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| adostu (informazioaren trataera, biktimari babesa, eta antzerakoan nola landuko diren adostu | LANGILEA | | | | | | |
| Ataunen eman litezkeen emakumeen aurkako indarkeria kasuen aurrean salaketa publikorako protokoloa aplikatu | UDAL GOBERNUA | | | | | ----- | • Salaketa protokoloa aplikatu behar izan den<br>• Honen balorazioa |
| Jaietan eraso sexualak eragozteko kanpainak egin (jai-batzordeekin, herriko tabernariekin etab.) | ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | ----- | • Egindako ekintza kopurua, denbora, modua, edukia eta aurrekontua<br>• Jai ezberdinetan gertatutako eraso kopurua<br>• |
| Indarkeria sexistak ekiditeko guneak ezarri hiru auzoetako jaietan | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | ----- | • Guneak jarri diren edo ez<br>• Guneetara zenbat emakume gerturatu diren |
| Urtean, gutxienez antzezlan, pelikula emanaldi bat programatu emakumeen aurkako indarkeriarekin zerikusia duena | KULTUR DINAMIZATZAILEA | | | | | ----- | • Jardueraren denbora, modua, edukia eta aurrekontua<br>• Parte hartu duten gizon-emakume kopurua.<br>• Jarduera kopurua. |
| Herri sarreran Ataunen emakumeen aurkako indarkeriarik ez dela onartzen dioten kartelak jarri | ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | 600 | • Kartelak jarri diren edo ez |

### 7.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa eta ikerketa hobetzea

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan egiten ari diren edozein ikerketa edo informazio bilketan parte hartzeko prest egon | | | | | | ----- | • Ikerketaren batean parte-hartzeko gonbidapenik jaso den edo ez<br>• Parte-hartu den edo ez |

## 8. Programa: Detekzioa eta Arreta

### 8.1. Portaera bortitzak garaiz hautematea eta horiei buruzko informazioa areagotzea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskuorri bat prestatu eta herritarren artean banatu indarkeria mota ezberdinen inguruko oinarrizko informazioarekin | ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | 1700 | • Eskuorria egin den edo ez<br>• Eskuorria banatu den edo ez |
| "Nik herritar bezala zer egin dezaket indarkeriaren hautemate goiztiarrean" Lan saioak egin herritarrak eta herri eragileak trebatzeko | ONGIZATE ZINEGOTZIA | | | | | 300 | • Lan saioak egin diren edo ez<br>• Lan-saioetan egon diren pertsonak (sexuaren arabera) |
| Emakumeentzako seguroak ez diren herriko puntuak identifikatzea eta hauetan beharrezkoak diren | HIRIGINTZA ZINEGOTZIA ETA UDAL | | | | | 1000 | • Identifikazio lana egin den edo ez<br>• Zenbat puntu identifikatu diren |

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| eskuhartzeak egitea | ARKITEKTUA | | | | | | • Zenbat aldaketa egin diren |

### 8.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen babesa eta arreta osoa bermatzea azpiprograma

| | Arduraduna | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | Aurrekontua | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskualdeko indarkeria protokoloa ezagutaraztea Ataunen (bai udal langile eta politikoen artean eta baita herri-eragileen artean ere) | ONGIZATE ZINEGOTZIA eta GIZARTE LANGILEA | | | | | ----- | • Protokoloa banatu den edo ez (eta nori) |
| Protokoloaren markoan lanean jarraitu | ONGIZATE ZINEGOTZIA eta GIZARTE LANGILEA | | | | | ----- | • Protokoloaren markoan egin diren bilera kopurua eta partehartzaileak (sexuaren arabera) |
| Protokoloak izan ditzakeen hobekuntza aukerak lantzea eskuldeko gainontzeko eragileekin batera | ONGIZATE ZINEGOTZIA eta GIZARTE LANGILEA | | | | | ----- | • Egin diren hobekuntza proposamen kopurua |

# 5. KUDEAKETA ETA JARRAIPEN SISTEMA

Ataungo Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 1go Plan honen jarraipenerako **Koordinazio talde bat** sortzea adostu da. Talde hau, talde mixtoa izatea erabaki da, udal ordezkari politiko, langile eta herri eragileek osatua. 2018an Kanpo Aholkularitza baten laguntza izango du taldeak.

Ondorengo **funtzioak** izango ditu:

- Berdintasun Plana oinarri hartuta, Urteko Programa operatiboa osatuko du eta programan dauden ekintzak garatzeko arduradunekin koordinatuko da.
- Behar izan ezkero, aholkularitza eta babesa emango die ekintzak garatzeko ardura dutenei.
- Ekintzen arduradunei ekintzen jarraipen fitxa helaraziko die
- Koordinazio taldearen ardura izango da ekintzen jarraipen fitxak jaso eta azpiprograma eta programen ebaluaketa egitea.
- Urte amaieran, jasotako datuekin, azken ebaluaketa bat egingo da jakiteko zenbateraino bete duen Planak urte horretarako ezarritako helburuak. Datorren urteetarako oinarriak ber-definitiko dira.

Urtean gutxienez 4 bilera izatea aurrikusten da. Aldi berean, koordinazio lan talde hau Ongizate Batzordearekin hartu-emanetan egongo da, planaren garapenaren berri emateko.

# 6. EBALUAKETA

Plan batek, ezinbestean izan behar du ebaluagarria. Ebaluaketa lan hau egiteko hainbat dokumentu dauzkazue jarraian. Ebaluaketa txikitik-handira egitea proposatzen dugu. Ekintza konkretuetatik abiatuz,

**EKINTZA JARRAIPEN FITXA** // Ekintzaren arduradunek bete behar du ekintzak amaitutakoan eta Planaren Jarraipenerako koordinazio egiturari bidali behar dio

| | |
|---|---|
| **Ekintzaren izena** | **Azpiprograma /Programa:** |
| **Ekintzaren deskribapena** | |
| **Arduraduna** | |
| **Burutzeko data edo epea** | |
| **Aurrekontua** | |
| **Ekintza burutzeko arazoak (egon badira)** | |
| **Ekintzaren balorazioa** | |
| **Inplikazio eta ondorioak** | |
| **Parte hartzea (sexua, adina)**<br><br>***Interesekoa bada jaso mesedez beste aldagai batzuk (jatorria, etab.)** | **Zenbat emakume:**<br><br>**Adina:**<br><br>**Zenbat gizon:**<br><br>**Adina:** |
| **Adierazleak**<br><br>**(planean ekintza bakoitzari esleitutako adierazleak kontutan hartu)** | |

## PROGRAMAREN EBALUAZIOA (Koordinazio eta Jarraipen Taldeak osatzeko)

| **Programa** | **Helburua:** |
|---|---|
| **Egindako ekintzen portzentaia**<br><br>**(Jasotzen ziren ekintzetatik burutu direnen kopurua)** | |
| **Planean aurreikusi gabeko ekintzak** | |
| **Aurrekontua**<br><br>**(totala programarena)** | |

**Programen balorazioa:**

- Lortu al da programa osorik garatzea?
- Zein arazo egon dira ekintzak garatzeko?
- Zein izan da parte hartze maila programa osatzen duten ekintzetan?
- Zenbateraino bete dira hartutako konpromisoak?
- Zer aldaketa gertatu dira pertsonengan, erakundeetan edota herrian?

## ARDATZEN EBALUAZIOA

| **Ardatza :** | |
|---|---|
| **Garapen maila:** | Ardatz bakoitza programaren garapen portzentzaia (kalkulu oinarritzat hartu programa bakoitzerako egin diren ekintzen portzentaia) |

**Ardatzen balorazioa:**

- Abiapuntuko datuekin alderatuta, zein puntutan aurkitzen gara helburuetara iristeko bidean? (aztertu ardatz bakoitza)
- Egokiak al dira helburuak lortzeko aukeratu diren ekintzak?
- Bestelako ekintzarik identifikatu al da?
- Zein izan da arlo bakoitzaren konpromiso maila helburu bakoitzarekiko?
- Zein arazo izan dituzte arloak, bakoitzak hartutako konpromisoak betetzeko?
- Egindako ekintzak populazioaren gizatalde ezberdinei zuzendu zaizkie? (gizonezkoei, emakumeei, gazteei, Euskal Erkidegotik kanpokoei, ezintasunen bat daukatenei…)
- Egindako ekintzak onurak ekarri dizkie populazioko gizatalde jakin batzuei? (gizonezkoei, emakumeei, gazteei, Euskal Erkidegotik kanpokoei, ezaintasunen bat dutenei…)
- Herritarren partaidetzarik egon al da plana gauzatzerakoan? Zein gizarte eragileren laguntza izan da plana aurrera eramateko?
- Finkatu al dira lehendik zeuden zerbitzuak, baliabideak eta jarduerak?
- Martxan jarri al dira baliabide, zerbitzu edota mekanismo egonkorrak (koordinazio lanetarako, datuak batu eta tratatzeko, e.a)?
- Nolako arazoak egon dira plana ebaluatzeko? Egokia al da ebaluazio metodologia?

## PROIEKTUAREN LIDERGOA

ATAUNGO UDALA

## DIRUZ LAGUNDUA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

## PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA

FARAPI KOOP.